

EZTABAIDATZEKO MATERIALA



DOKUMENTAZIO
ZENTROA

TXT 2010C

GIZARTE ITUNA

GIZARTE ITUNA

G O G O E T A K

LAB

lingüe abstrakoen balzardok

SARRERA

Azken hilabeteotan gobernuak erasotzen ari dira beraien onerako Gizarte Ituna gauza dadin. Hori lortzeko estatuko gobernuak egindako planteamenduek alde batera uzten dute orain arte PSOEk egindako politika ekonomiko eta datu ekonomiko benetan harrigarriak aurkezten dizkigute, politika ekonomikoari buruzko inolako ebaluaketa kritikorik egin gabe.

Nahastea sortarazten dute, zenbat eta okerrago hobe estrategiari jarraituz, gobernu eta ugazaberiaren inposaketez osatu eta UGT eta CCOOrentzako azaleko emakidez lagunduriko gizarte itun txar batek Euskal Langileen Mugimenduaren interesen aurkako eraso-ildo sendar dezan helburuaz.

Estatuaren egoera ekonomiko eta EAE eta Nafarroako Elkarteetako gobernuen menpekotasun osoak politika ekonomikoaren gau eguneko norabidea aldatzeko neurriak eskatzen dituzte.

Balitzko «itunean» barnesartu diren gaiak ez dira nahikoak eta ELMarentzako kaltegarriak dira, ezina egia bilakatu nahi baita trena esku batez geldiaraziz eta gizarte eragileek beraiena jarritz.

ELMkezin du estatu mailan nahi dena bezalako «itun» bat onartu, ez mahairaturiko edukinengatik ez eta «negoziatuko» duten solaskideengatik ere.

Bi lan burutu ditugu, bata uztailan eta bestea eguneratua, eskualdeko eztabaidetarako informazioa ahalbideratzeko

GIZARTE ITUNARI BURUZKO HAINBAT GOGOETA

1. GIZARTE ITUNAREN AURREKINAK ETA EGUNGO INGURUABARRAK

1.1. Francoren heriotzearen ondoren ekin zitzaion erreforma politikotik -1976tik- gaur egunera arte 17 urte iragan dira, eta denbora tarte horretan, ziklo ekonomikoari dagokionez, hirualdi bizi izan ditugu. Lehenengoa 1976tik 1985era, ekonomia espainiarrak atzeraldi bat jasan zuen; bigarrena 86-89 aldia, gorantz jotzen hasi zenekoa eta hirugarrena, 1990tik bizitzen ari garen hau, berriro ere atzeranzkoa. Lehenengoa da, baten bat izatekotan, gizarte itunen aldia; Moncloako Itunak (1978), 1980-81 (AMI), 1982 (ANE), 1983 (AI) eta 1985 (AESen lehenengo urtea)..., bigarrenaldian, hazkundealdian, ez zen gizarte itunik egin, eta orain, atzeraldi luze eta gogor honen ostean, berriro ere hasi gara gizarte itunekin gora eta behera.

1.2. Gobernuak Gizarte Ituna sustatzen hasi da berriro ere atzeraldi sakon, luze eta ustekabeko baten inguruabarrak nozitzen ari garelarik. Atzeraldia mundu osoan gertatzen ari da, baina estatu espainiarrean are larriagoa da. 1992an ekonomia ez da hazi, 1993an BEGk behera egingo du, industri krisialdi larrian eta langabeziaren hazkunde izugarrian murgildurik gaude eta urteko 600.000 lanpostu galtzera ere iritsi gara. Adierazitakoa espainiar ekonomiak dauzkan egitura-arazo larrien isla da, eta arazo hauek berauek dira nazioarteko krisialditik bereizten dutenak. Nazioarteko krisialdia berez bat-batean gertatu da eta Espainiako ekonomian gertatzen diren gorabeheren zio baino katalisatzailea da.

1.3. Atzeraldi hau eta aurrekoaren (hamarkadaren hasierakoa) arteko desberdintasuna espainiar ekonomia EEEko merkatu ekonomikoaren konkurrentzi inguruabar bortitzean murgildurik egotea da. Honen ondorioz, ez dauka arantzelen bidez defendatzerik, kolokako konkurrentzi egoera dago EEEen sartzeko negoziaketa desegoki baten ondorioz. Estatuko industria eta nekazaritza ez zeuden eta ez daude hain denbora laburrean -7urte-integratzeko prestaturik, eta orain aipatu egiturazko konkurrentzi defizitak eta integratzeko kolokako baldintzak bortizki

isladatzen ari dira kanpoarekiko merkatu-trukaketetako neurrigabeko defizita eta industri ehunaren suntsiketaren bidez, guzti hau atzeraldi orokor horrek larriagoturik.

Honekin batera, eta Europar Elkartearen deiturikoaren eraikuntza eredia era lausengarri eta akritikoz onartu izanaren ondorioz, politika ekonomikoaren aspektu garrantzitsuak -truke politika kasu- tajutu eta maneiatzeko gaitasunari borondatez utzi zaio eta Europaren estaldura bilatu da Konbergentzia Egitasmoan zirriborraturiko urritasun eta doikuntza politika areagotzeko. Lortu duen garrantziagatik aipatzekoa da ere merkatu espainiarreko enpleguaren aldizkakotasun eta behinbehinekotasuna, duela 16 urteko abagune atzerakor horrekin zerikusia daukan faktore berria den aldetik.

1.4. Azken hilabeteotan gogor aritu dira Gizarte Itunaren alde eta hortxe dago kontua puripurian. Funtsean, ekimen hori estatu espainiarrean aplikatu ohi den urritasun eta doikuntza politika areagotzera bideraturik dator, beti bezala, politika horiek abiarazi eta gauzatzeko sindikalismoaren aldekotasuna bilatzen dutelarik. Gizarte Ituna, beraz, politika atzerakorrak aplikatzeko aldekotasun eta bidezkoitasuna bilatzeko tresnatzat uler daiteke, beti ere, aurrerago aipatuko dugun politika murrizkorren euskarri diren oinarriak gizarte-eragileekin eztabaidatzeko inolako asmorik gabe. Ondorioz, azpimarratzekoa da gogor ekin zaiola bide horri, Alemania, Italia, Portugal, e.a. en sinaturiko Gizarte Itunak aurrekintzat edukiz.

Estatu espainiarrean eraso politika ekonomiko eta sozialerako proposamenetan gero eta batuago dauden botere ekonomikoetatik (enpresari eta bankari handiak), komunikabideetatik, ekonomi profesionari eta erakundeetatik eta PSOE-PP-CIU-PNV alderdiek osatzen duten bloketik datorrigu. Honen inguruan esan beharra dago E-6ko hauteskundeek, gero eta proposamen bateratu eta homogenoagoak dituzten alderdien blokearen egoera sendartzen duen inguruabar politikoa egituratu dutela, eta proposamen zein diskurtso sozialdemokrata egiten dituen bakarra, IU, bidean geratu da ordezkariotasunari dagokionez eta edozein aukera politikotatik bazterturik dago. Eraso orokor honetan estatuko ugazaberiaren jarrera azpimarratu behar da, aurtengo lehenengo seihilabetekoan negoziazio kolektiboaren blokeo, eragozpen eta sabotaiak ere gauzatu dena. Horixe ondoriozta daiteke CCOO eta UGTk enpresariei Negoziazio kolektiboaren prozesua normaldu eta akordio bidez gauzatzeko behin eta berriro egindako dei eta salaketetatik.

1.5. Aurreko atzeraldiaren abagunearekiko desberdina den datu gisa azpimarratzekoa da CCOO eta UGTk ordezkatzeko estatu- sindikalismoa aldi honetan ekintza batasun estrategikoaren baitako sintonia maila handi batez agertzen dela, hots, duela 8-10 urteko areriotasun eta lehiak guztiz gainditurik. Homogenotasuna, Gizarte Itunaren aurkezpena dela eta beraien zuzendaritza organoek egindako ebazpenen edukinetik ondoriozta daiteke. Hala eta guztiz ere, azpimarratu beharra dago UGTk itunaren aldeko joera nabarmenagoa daukala eta hori tentsio zio izan dela azken aldi honetan.

Estatuko sindikalismoa -batez ere CCOO- abagune honetan, aurreko aldiko gizarte itunetarako erabilitako estrategia zein emaitzak eta gizarte itunen ezaugarri eta funtzionaltasunari buruz 4. eta 5. Biltzarrean egindako gogoeta kritikoaren ondoren agertzen da.

Aldi honetara heltzerako, urteko lehenengo seihilabetekoan jadanik, lortuak ziren zenbait akordio hainbat Autonomi Elkartetan: Gaztela-Leon, Gaztela-Mantxa, Madril, Katalunia, Valentzia, Murtzia.

EZTABAIDAREN NONDIK NORAKOA

1.6. Gobernuak honako hiru eztabaidagaiak mahairatu zituen Gizarte Itunari buruz:

- Sindikatuak eta ugazaberiaren arteko adostasunaz zehaztu beharreko epe eta mugak, alokairuak eta banatu beharreko etekinak, hots, helburua sindikatuak alokairu igoera inflazioaren edo ekoizkortasunaren bilakaerari egoki dadin onartzea da. Enpresarietarako mezua, banatu

beharreko etekin-kopuruaren automugapena.

- Sindikatuek 1994eko aurrekontu defizita murrizteko era zehatza onar dezaten, hots, presio fiskala areagotu gabe, indarrean dagoen egitura fiskala aldatu gabe eta gastu arruntaren murrizpena onartzea; izan ere, hau bi eratan baino ezin da egin: enplegatu publikoen soldatak murriztuz edo gizarte-prestazioak mugatuz/etenez edo bi bide hauek batera aplikatuz.

- Sindikatuek, Gobernuak Ekonomi eta Gizarte Kontseiluari (CES) emandako agirian jasotzen zen lan merkatuaren kontraerreformarako proposamen eta ardatz nagusiak onar ditzaten. Proposamenak hauek dira:

a) Lan merkatuko tartekaritzaren zati garrantzitsu bat pribatizatu eta INEMi sorospen lana egokitzea.

b) Kontratazio motei dagokienez, kausaltasun printzipioa berreskuratzeko prest agertzen badira ere eta aldibaterako sustapen kontratua deusezteko asmoa daukaten arren, hau guztia lan harremanak enplegu erregulaketarako espedientearen bidez iraungiarazteko gaur egun dagoen baimen administratiboaren legezko beharkizuna desagertaraztearen truke.

c) Egungo lan harremanen araupeketaren aldarazpena honako puntu hauetan: mugikortasun funtzional eta geografikoa; lan-denboraren antolamendua; lan baldintzen eta alokairu-egitura zein dinamikaren aldarazpena. Hau guztia malgutasun handiagoa eta enpresariaren zuzendaritza-ahalmena areagotzea lortzeko.

d) Komenioaren arau izaera eta berau egun iturburu-sistemaren barruan kokaturik egotea ere kolokan jartzen da. Lan eskubide kolektiboaren benetako talde-jitea murriztu nahi da, «komenio kolektiboa desaraupetu» finean. Negoziazio kolektiboaren narriaketa hau ordezkari unitari eta sindikalei negoziatzeko ahalmena kendu eta banakako autonomiari ematea izango litzateke. Horrela malguketa lortu nahi da, bai eta sektore gogorraren eta lan harremanetarako funtsezko aspektuen desoreka ere.

1.7. Estatuko sindikalismoak ISPren edukina aurkeztu eta honakoa adierazi du:

a) Kontzertazio oso bati buruz hitz egiten bada, egungo politika ekonomikoa bideratuko duten oinarri eta funtsak ere mahairatu behar dira. Gobernu espainiarrak egiten duen doikuntza eta urritasunean oinarritutako politika neoliberalari aurkajarririk agertzen dira CCOO eta UGT, IUren aldekotasunaz, profil sozialdemokratako beste politika ekonomiko eredu batez. Sindikatuen proposamena honako ideia hauetan funtsatzen da:

a.1) Egungo Konbergentzia Programa atzerakor eta murrizkorrak zenbait aldagai makroekonomikoren (defizit publikoa; inflazioa; interes tasak; zor publikoa...) konbergentzia lortu nahi du. Programa honek ekonomiaren atzerakada eragingo du, zabalpena ekarri beharrean. Beraz, beste konbergentzia programa bat azaldu behar da, Europako herrialderik garatuenean, aldagai errealetan oinarrituriko konbergentzia eskema: enplegu kantitate eta kalitatea; gizarte-babespenerako gastua; aberastasun erlatiboaren maila...

a.2) Estatuak ekonomiaren programaketa, plangintza eta eskuhartze aktiboari nolabait ekin diezaion lortu behar da, gaur egungo eskusartze neoliberalak -lau aldagai makroekonomiko erabili eta gainerakoa merkatuaren logikaren esku uztean oinarritua- ez bezalako sistema, alegia, honek hondamendira baikaramatza.

a.3) Ideia hauek honako neurri hauetan gauzatzen dira:

- Honako puntu hauetan inbertsioak egitea barnesartzen duen aurrekontu hedakorra: azpiegitura, etxebizitza, ingurugiroa, Lanbide Heziketa, I+D (I+G)

- Zerga fiskalak areagotzea, gastu publikoaren gehikuntzari aurre egin ahal izateko eta ondorengo neurri hauen bitartez, defizit publikoa mugatzeko:

- Iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko plana.
- Sozietateen gaineko zergak sendartzea (etekinen gaineko zerga).
- Aberastasun handien gaineko zerga sortzea.
- Finantza inbertsioa zamatzea.

- Korritu tasen errotiko murrizketa eta, beharrezkoa balitz, Europar Moneta Sistematik irtetea.

- Inflazioaren aurkako borrokari era zeharo desberdinez ekitea, inflaziorik gehien eragiten duen zerbitzuen sektorearen aurkako neurriak hartuz; jarrera monopolisten aurkako neurriak hartuz...

- Sektore eta industri politikak gauzatzea ekarri, industri sektore publikoari garrantzia eman eta politika horizontalak konbinatuko dituen industri politika aktiboak.

b) Lan merkatuaren erreformari buruzko eztabaidari honako berba hauetan ekitea:

b.1) INEMen erreforma, bere eginkizunak eta berauen izaera publikoa sustatuz.

b.2) Aldibaterakotasunaren murrizketa eta enplegu egonkorraren sustapena.

b.3) Lanaren banaketa. Aparteko orduak desagertarazi. Lantsaioaren murrizketa; jubilatzekeo adinaren benetako murrizketa.

b.4) Lan ordenantzen ordezipen negoziatua.

c) Gizarte-babespenaren defentsa eta hobekuntza.

d) Bestelako kontu batzuk.

e) Eskema honetan oinarriturik, eta gauzak orokorrean espero bezala gertatuz gero, Estatuko sindikatuek alokairuen murrizketan funtsatutako itun bati eta akordio global baten plantak egin eta sinatzeari helduko diete. Hau da, politika ekonomikoaren oinarriari gizarte-babespenaren defentsari eta lan merkatuarentzako neurriari buruzko eztabaidak derrigorrez egon behar du tratatu beharreko gaietan, alokairu-ituna eta akordio globalaren legebideztaketa gauza daitezten. Guzti hau aurretiazko baldintza bati loturik etorri behar da, hau da: Greba Legeari buruzko Proiektua, Lan Osasun Legeari buruzko Akordioa, Enplegatutako publikoari buruzko berrikuspen-klausula eta hauteskunde sindikalei buruz itundutako arautegiaren instrumentalizazioari buruz itundutakoa bete egin behar da.

1.8) Egungo indar-koerlazioaren egoera ikusirik ondoriozta daitekeenez, Gobernuak ez du onartuko sindikatuek proposatutako eskema. Eta horrez gain, Estatuko sindikatuek ez daukate indar-koerlazioa aldarazi eta, ondorioz, beren eskema inposatzeko gaitasunik, politika ekonomikoaren funtsezko oinarriak eztabaidagai edo negoziagarri ez diren heinean. Prozesu honetan ikustea izango dugunez, CCOO eta UGTk defentsa-jarrera erakutsiko diote goimailakoek saio bakar batean egindako negoziazio edo itun globalerako alternatiba den mahai eta maila desberdinetan eztabaidatutako negoziazioari, eta bi kontu hauen inguruan egingo dituzte ahaleginak:

a) Gobernuaren ekonomi eta gizarte-politika legebideztatu ez eta euren diskurtso politikoa iraurarazteko ahalmen nahikoa gordetzea eurentzat.

b) Zerbait lorpen partzial gauzatzea.

Gehiegi sakondu gabe, nire ustez aurrikus daitezkeen emaitzak honakoak dira:

- Greba eta Lan Osasunari buruzko Lege Proiektuak eta enplegatu publikoei buruzko berrikuspen-klausularen aplikazioa aurretiaz itundu bezala iraunarazten saiatuko dira. Nire iritziz, Greba Legeak oztopo larriak sortaraziko dizkie, PSOEek bere erruak zuzitzeko, CIU-PNVri eskualdatuko baitie erantzukizuna, ugazaberiaren adostasunaz.

- Lan Merkatuaren kontrarreformari dagokionez, sindikatuen jarrera ondorengoa lortzen saiatuko direla aurrikus daiteke:

- Negoziazio kolektiboaren arloan indarrean dagoen erregimen juridikoa iraunarazi eta, ondorioz, komenioaren jite arauemalearen narriaketa gerta dadin ekiditea.

- Kontratazio moten gatazkan hartu beharreko neurriak bereiztea: aldibaterako sustapen kontratua desagertaraztea; kausaltasun printzipioaren berreskurapena; aldibaterako ihardukera berririk ez ezartzea. Enplegua araupetzeko espedienteen administrazio-baimena deusezteari dagokionez, euren burua sendatzen saiatuko dira, baina baliteke presioa dela eta Estatuko Sindikalismoak hori negoziatzeari heldu eta baimena negoziazio kolektiboaren bidez araupeturiko eta ohizko bidean sarturiko prozedura batez ordeztzea.

- Ordenantzei buruzko komenioetan ordezipen negoziatua eta ondoriozko estatu-zentralizazioa lortzea.

- Maila guztietan egindako negoziazio kolektiboan Acuerdo Estatal de Formación Continua izeneko abiarazi eta artikulatzea.

- Gizarte-babespenarekiko defentsa-jarrera; orain artean lortutakoarekin geratu.

Esan nahi da, finean, Estatuko sindikalismoak ez duela lortuko Gobernuaren ekonomi politikako garrantzizko ezer aldaraztea, eta bere defentsa-jarrerari utsiz, aurretiaz lortutako akordioak finkatzen saiatuko da -Greba Legeari dagokionez, oztopo larriak aurkituko dituen arren-, bai eta aldibaterako kontratazio gaien aldaketa positibo partzialen bat abiarazten, Lan merkatuaren kontrarreforma dela eta erabilitako neurriak bortitzenak galgatzeko -negoziazio kolektiboaren jite arauemalearen narriaketa eta administrazio-baimenaren desagertarazpena, kasu-, Lan Ordenantzen ordezipen negoziatua lortzen eta negoziazio kolektiboan AEFC delakoa artikulatzen ere.

1.9) Guzti hori azterturik, euskal sindikalismoak honakoari buruzko gogoeta egin behar du:

a) Lan harremanak funtsean estatuko dinamikaren pean jartzen ahaleginduko dira. Biltzarretik behin eta berriro esaten ibili garena gauzaturik ikusteko aukera izango dugu: Lan Harremanetarako Marko Autonomorik ez egoteak euskal sindikalismoari ezartzen dizkion traba estrategikoak. Pisua eta erritmoa CCOO eta UGTk ezarriko dituzte eta euskal sindikalismoa beroriek abiarazten duten strategiako konpartsa izango da. ELAk oztopo handiak dauzka bere arreta sorospen-gaietara desbideratzeko; beronen strategiaren mugak nabarmenagoak izango dira. Eta guk, geure strategiari utsiz, LHMAren erreibindikazioa hedatu eta indarrean jarri behar dugu.

Gauzak honela daudelarik, Gobernuak, lehen aipatutako bloke politikoak eta ugazaberiak erakusten duten erasokortasunaren arabera, ez da baztertu behar Estatuan, orain arteko guztiek izan duten defentsa-jite berbera (85ean pentsioen eraldaketaren aurka; 88-A-14ean gazteen enplegu-kontratuaren aurka; 92ko M-27 eta 28an «Decretazo»aren aurka) izango duen Greba Orokorren bat gertatzeko aukera.

b) Estatu mailako sektore-komenioetan ordenantzak eta heziketa iraunkorra artikulatzeko prozesu honek negoziazio kolektiboaren zentralizazioaren areagoketan noraino eragiten duen aztertu beharko da.

1.10. Halaber, datorkigun abagunearen ezaugarriak krisialdiaren larritasunaren jarraipena, Gizarte Ituna eta Estatuaren eraso bortitza zein dinamika desorekatzailea izango direlarik, ELA-CCOO-LAB akordio sindikalari geure estrategia sindikalean dagokion eginkizuna ere zehaztu behar da.

GIZARTE ITUNARI BURUZKO HAINBAT GOGOETA (2)

1.- Azpimarratzekoa da eremu sozio/ekonomikoan informatiboki gizarte itunak polarizaturik daukan abagune honetan Gobernuak inposatu nahi dituen neurrien garrantzia. Gizarte ituna Gobernuak pentsaturik daukan neurri multzoa gauzatzeko metodo edo bidea da.

Baina aldebakarreko inposaketaren bidea ere har dezake, mugitzen deneko aldeko indar koerlazioa ikusirik. Beraz, egokiagoa da arazoaren muinean erreparatzea, hots, inposatu nahi diren neurrien nondik-norako eta balorazioan ezarketaren gauzatzean baino, dela hau akordio edo konplizitate sindikala dela inposaketa huts-hutsa.

Gobernuak oraingoan ezarri nahi dituen neurriak hauek dira:

- Lan-merkatuaren kontraerreforma.
- Estatu espainiarrean gizarte babesaren deiturikoaren bitartez ezarritako behinbehineko elkartasun-eskema berrikustea.
- Errentak enpresarien alde banatzeko politika.
- Zerbitzu eta enpresa publikoen pribatizazio politika.

Lau neurri hauek egitura izaera daukate, hots, iraunkortasunezko jarrera, eginkizun eta harremanak-ordurarteko desberdinak eta atzerakoiak-sendartzen dituzte. Hilabete hauetan burutuko diren egitura aldaketek -hitzarturik zein aldebakarreko inposaketaren bidez-, sustatzen dituenarentzat (Gobernua, Ugazaberia, ...) iraunpen luzeak izango diren zapalkuntza harremanetarako eremua eratuko dute.

Lehenengo hirurak itxuraz sindikatuen onespina daukate, eta laugarrenak, pribatizazioarenak, ez.

Honez gain, Gobernuaren proposamena ekonomiaren arlo publiko eta pribatuko enplegatuen alokairu igoeraren mugaketan oinarritzen diren abagunezko neurrietara ere mugatzen da.

Beste ikuspegi batetik begiratuz:

- Lan-merkatuaren kontraerreformaren bitartez «lan-malgutasuna» deiturikoa ezarri nahi dute, hau da, lan-harremanen desaraueketa zabal eta sakona.
- Gizarte prestazioen (pentsioak, langabezia, ...) arloko neurri murriztaile, pribatizazio (gizarte eragileen onarpenik ez dutenak) eta enplegatu publikoen alokairu mugaketaren bidez defizit publikoa murriztu nahi dute. Arlo Publikoaren eginkizuna murriztu nahi dute ekonomian eta gizarte kohesioan.
- Alokairu eta gizarte prestazioetan egiten den presioaz eta enpresariengan fiskalitatea

murriztuz, langileen poltsikotik enpresarienerako diru-trasbaserik handiena egin nahi da.

2.- A) Lan-merkatuaren kontraerreformaren oinarrizko ardatzak lanaren lehenengo atalean zehazturik daude (3. eta 4. orr.). Sekuentziaren hiru berbak ukitzen dituzte:

- Lanposturako sarbidea.
- Lanean irautea.
- Lanpostua uztea.

A.1. Sekuentziaren lehenbiziko berbari dagokionez, malgutasuna gauzaturik dago aldizkako enpleguari estaldura ematen dioten neurriez (84eko erreformaz geroztik kontratuen heren bat aldizkako izan dadin lortu da). Gobernuak egin nahi dituen eraldaketek ez dute, itxuraz, egoera hori konponduko; enplegu sustapenerako aldizkako kontratua ezereztatzeko proposamena ez da ildo honetarako pentsaturik dauden neurri atzerakoiei aurre egiteko nahikoa.

Sekuentziaren atal honetan dago ere INEMen eginkizuna, enplegurako zerbitzu publikoa den aldetik. Eta hemen lan-merkatuaren bitartekaritza egiten duen INEMen atal garrantzitsu baten pribatizazioaren bidea hartzen da Aldizkako Lanerako Enpresak legeztatuz.

A.2. Sekuentziaren bigarren berbari dagokionez, erreformak lan-indarraren kudeaketa guztiz malgua lortu nahi du. Honako eremu hauen bane mugikortasuna ukitzen duten arau juridikoetan inposatu nahi da erreforma:

- Mugikortasun funtzionala: Lan-Ordenantzak eta Arauak derogatuz.
- Mugikortasun geografikoa: aginte administratiboaren kontrol eta erabakietarako eginkizunak desagertaraziz.
- Egitura eta alokairu-dinamika: ordainkera aldakorren alde eta finkeen aurka egin nahi da, horrela ekoizkortasunaren areagotzeak alokairuarekin harreman estuagoa eduki eta berau gehiago zehaz dezan.

A.3. Sekuentziaren hirugarren berbari dagokionez: lanpostua uzteari dagokionez alegia, kanporaketa librea ezarri nahi da ekonomi edo teknologi zioen ondoriozko kanporaketen aurretiko baimen administratiboaren bitartez.

Baina esandako guztiaz gain kontraerreformak komenioaren arau izaera kolokan jarri nahi du -4. or. esan den bezala-, eta horrekin sindikatuak. Norbanako itunei berezko izaera eman nahi die, eskubideak ezin ukatzea desagertarazi, ...

B) Gizarte Segurantzaren sistemaren arloan, astiro baina etengabe egungo Gizarte Segurantzaren ereduaren murrizketa nabarmena eta berau kolokan jartzea ekarriko duten neurriak ezagutuko ditugu.

Langabeziagatiko estalduraren arloan badago neurri multzo bat Konbergentzia Planarekin hasi zena, horren lehenengo pausoak izan ziren «decretazo»ak ekarritako neurriak.

Estatu espainiarrean gizarte babesa zalantzan jarria dago jadanik, Eeko batezbestekiko BEGaren gaintiko 7 puntuko defizita baitauka (eta zeresanik ez jarrera zentralerikiko). Iritsi aurretik atzerabideari ekiten zaiola, alegia.

3.- Iharduera guzti hauek 1992ko apirilean aurkeztu zen Konbergentzia Planean oinarriturik daude. Bertan adierazten ziren 90eko hamarkadan burutu beharreko politika ekonomiko eta sozialaren nondik norakoak. Eta orain oinarrizko neurri horiek nola aplikatzen diren ikusten ari

gara.

Konbergentzia Plana aurkeztearen beharra izan zen Elkarteko kide diren Estatuak jarritako betekizun bat. Baina Planaren berbak eta orientabidea Europar Elkartearen Eraikitzearen Tratatuaren adierazten direnekin hertsiki loturik daude. Maastricht-eko Tratatuari «bai kritiko» batez atxekitzen zaion batek -CC.OO, UGT eta ELAk egin duten bezalaxe-, (Europako Sindikatuen Konfederakundea) CESei jarrerari loturik, nekez argudia dezake hertsitasun eta zintzotasun intelektualean oinarrituz, horrek ez dakartzala aurrekontu jakin eta orientabide politiko eta sozial jakin eta zehatzak. Beraz, gezurrezkoa da Tratatuaren aldeko jarrera eta diskurtsuan Gobernuak proposaturiko politika ekonomiko eta sozialaren oinarriekiko erradikala den jarrera bat konbinatzea proposatzea.

Aipatu sindikatuek jarrera ideologiko ahula daukate beraz, eta gainera, jarrera sindikal defentsiboan daude.

Maastrichten zehaztu zen prozesua ez doa, ez pentsatu zen erritmoan, ez pentsatutako bidetik eta EMS bezalako erakundeak hura sendartzeko oinarrikoak direnak krisian daude; bi egitate hauek ez dute ezkutatu behar beraien asmo txarrek bere horretan, edo antzera, dirautela eta finean, Europa eraikitzearen eredu delako estatu espainiarren konbergentzia «nominalaren» aldeko apostua, eta ez gizarte mailako konbergentziaren eta industri eta ekonomi-ehunaren aldekoa, da egungo egoeraren sortzailea.

4.- Orain arte ikusitakoak lan-harremanen aldi berri baten atarian gaudela adierazten digu. 70eko hamarkadaren amaieratik 80ko hamarkadaren amaierara estatu espainiarrean iraun duen lan-harremanetarako eredu LE eta LOLSei oinarriturikoa izan da eta 80eko hamarkadan eraiki da babes soziala den egitura ahul hori.

Proposaturiko neurri horien gauzaketan atea zeharkatu eta aldi eta eredu berri batean sartzen gaituzte, bertan, behinbehinekotasun osoa, desaraupeketa eta urgazpen-babesa izango dira ziklo berri honen adierazgarri. Iharduteko gune eta arau-sistema berri bat definitzen ari dira, eta horren baitan mugimendu sindikalak aldekatutasun txikiagoaz ihardun beharko du.

Lehenengo aldiaren eta bigarren honetan Euskadiko eragile politiko, ekonomiko eta sozialak ikusle soil izatera mugatu dira eta horrela segituko dute. Bi estatutuetarik batek ere ez du ahalbideratu bertoko eragileek errealitate honen aurrean eskuhartzeko gaitasunik eduki dezaten.

5.- Inguruabar honetan, 93ko otsaileko akordio sindikala (ELA-LAB-CCOOen artean hartutakoa) desitxuratua geratu da.

ELAk jarrera defentsibo eta iheskorra hartu du, deskribaturiko estatu-dinamikak bere planteamenduak hankaz gora jartzen dituelako eta azaleratu egiten duelako nabarmenki haren estrategiaren behinbehinekotasuna, estatutu markoari atxekirik dagoena.

Ildo honetatik CCOOk UGTrekiko harremanak birkokatu eta normalizatu egin nahi ditu Vascongadasen, otsaileko akordioari sorospen izaera emanez. UGT baztertzeko ELAk bultzaturiko estrategia apurtu nahi du. Estatu sindikalismoak nazionalarekiko ekintza eta estrategia sindikalerako daukan nagusitasuna iraunarazi eta nabarmendu. Katalizatzailearena egin nahi du UGT otsaileko akordioan integraraziz.

Estatu mailako akordio sinaketak otsaileko akordio sindikala bertan behera geratzea ekar lezake.

Abagune honetan alde ofentsibora jo behar dugu ELArekiko, gure bide estrategikoari loturiko ekimenetara ekarriz.

6.- LABek errealitate honi aurre egin behar dio honakoa nabarmenaraziz:

A)

6.1. LHMArik ez egoteak euskal sindikalismoari ezartzen dizkion mugapenak. Abagune honek begibistan uzten du ekintza sindikal abertzalea herren dagoela, ezin duela ekintza sindikala bete-betean gauzatu.

6.2. Euskal langileok eta sindikalismo abertzaleak ondorioak pairatu behar izango ditugu, estatu mailako dinamika politiko, sindikal eta sozialaren ondorio diren lan eta bizi-baldintza eta lan-harremanak ezarriko dizkigute. Kontutan hartuz gainera, estatu mailan indar-erlazioa ezker soziologiko, politikoa eta sindikalismoarentzako euskal eremuan baino txarragoa dela.

6.3. Lan-baldintzak eta lan-harremanak araupetu egingo dira, euskal mugimendu sindikaleko langile gehienek nahiak alde batera utziz.

6.4. NKaren praktika berezitua desnaturalizatzeko arriskua honako honek areagotu egin dezake:

- Lan-merkatuaren kontra erreforman zehazten zen NKaren araupeketa-narriadura gauzatzea.

- Lan-ordenantzen ordezkapenaren negoziazio zentralizatua, estatu mailakoa, CCOO eta UGTren eskutik.

- Estatu mailako trebakuntza jarraiari buruzko akordioa aplikatu eta CCOO-ELA-LABen arteko akordio proiektua ez onartzearen arriskua.

- Gizarte Itunaren inguruabarren baitan estatu mailan aplikatzeko diren akordioak sinatzea.

B) Ildo honetatik diskurtsuan jarrera ofentsiboa azaldu behar dugu eta ELAri begirakoa. ELAri proposamen zehatzetan oinarrituriko epealdi bat eman behar zaio:

- Aurreko akordio sindikalaren birformulazioa.

- Alternatiboki hedapen handiagoko agiri bat proposatzea, haren edukina estatu mailan atzera egin duten gai edo arloei buruzkoa izango da.

- Goian adierazitakoa gauzatzen bada, ildo honetatik erakunde publikoei luzatuko genieke deia. Bestelako ekimen bateratuak.

C) Estatuko sindikalismoarekiko dialektikan gure eskubideak onartzea ekintza sindikal osoaren aurretik jarri behar dugu. Guk ekimen bateratuak onartzea haiek lan-harremanetarako marko autonomoak onartzearen arabera izango da. Eta hemendik bideratu behar ditugu gure jarrerak estatu mailako Greba Orokorrak proposatzen direnean; ildo beretik, Gerbaren izaera beraz gain, egun desberdinetan deialdi alternatiboak egitearen justifikazioa kokatu behar dugu.

D) Honako hau lekarkeen edozein neurri arbuiatzen dugu, itundua zein inposatua izan:

- Ekoizkortasun baxuaren zio alokairuak direlako aitzakipean lan erretegi eraso egitea. Kontutan hartuz estatu espainiarrean alokairuen benetako kostutik 19 puntuko jaitziera izan dela eta EEn 7koa.

- Gehiegizko gizarte babesa dagoelako aitzakipean langabetu eta pentsionisten gizarte babesa murriztea. Kontutan harturik EEkoarekin alderatuz BEGaren gainean %7ko

gizarte gastu txikiagoa dagoela.

- Defizit publikoa murrizteko, zerbitzu eta enpresa publikoetatik alor ekoizkor eta errentagarriak pribatizatzea.

E) Kontraerasoa planteatu behar da Ekintza Sindikaleko eremu guztietan.

Ideologikoan: ELM eta langileen gizarte eginkizuna balioetsiz.

Politikoan: politika, ekonomia eta lan arloko eskuhartzerako marko bat exigituz Hegoaldean.

Erreibindikatihoan: - Alokairu eta pentsioen eskuratze-ahal maila ez galtzeko gure erresistentzi gaitasuna areagotuz.

- Negoziazio Kolektiboa hedatu eta globalizatuz.

Sozialean: gobernuen neurri eta egungo politika ekonomikoaren norabidearen aurkako jarrera gizartean gauzatzen lagunduz.

Alternatiboan: Nafarroa eta EAEko Elkarteetan industrializazio aktiborako politika exigitzea.

Politika ekonomikoa orientatuko duen sektore publikoa garatzea.

Kohesio nazionala eta arloen aniztasuna eta oreka ardatz edukiz, nazioarteko konkurrentziari aurre egingo dion euskal ekonomi eta gizarte eremua sortzea.

Donostia, 1993ko irailak 21